

Donostia, 2018ko ekainaren 15a

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ORDENANTZAKO 2. KAPITULUA, "IBILGAILUAK SARTZEKO BIDE PUBLIKOAN ERRESERBATUTAKO PASABIDEAK" IZENEKOA, BETETZEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten Du, Gune Publikoen, Obren eta Hiri Zerbitzuen Batzordean hil honetan oinezkoen eta ibilgailuen ordenantzako 2. Kapituluari buruz ("ibilgailuak sartzeko bide publikoan erreserbatutako pasabideak") egindako interpelazioaren harira.

AZALPENA

Toki bat aparkalekurik gabe gordeta izan eta espaloia ginetik lokal edo lursail partikular batera pasatzeko lizentzia bat ordaindu eta seinale batzuk jarri behar dira, zutikakoak eta lurrekoak, batzuetan.

Asko dira, ordea, lokal edo lursail partikular batera pasatzeko seinalerik ez duten lekuak. Halakoek ordenantza urratzen dute, eta bidegabeak izan daitezke: batzuek, pasabideak behar bezala edukitzeko, ordaindu egiten dute; beste batzuek, ordea, ez dute ezer ordaintzen, baina beren eskubideei eusten diete, inor ez baita ausartzen lokal edo lursail partikular baten aurrean aparkatzera.

2015eko azaroan, auzi horri buruzko interpelazio eta mozio bana aurkeztu genituen. Orduko hartan, Gobernuak argi esan zigun auzia konpontzen zaila zela, hainbat departamentuk modu koordinatuan lan egitea eskatzen zuelako, baina lanean hasiak zeudela arazoari soluzio bat emateko.

Gure mozioa aho batez onartu zen, eta hauxe eskatzen zuen:

“Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio pasabideen gaineko araudia betetzen dela bermatzearen aldeko konpromisoa har dezala, eta erregularizatu ditzala kasu irregular guztiak.

Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio, kontrol eta erregularizazio horiek eginak dituenean, aurkez dezala txosten bat, herritarrek eta talde politikoek egindakoaren berri izan dezaten.”

Badakigu, ordea, gaur egun ere arauak sarriegitan hausten direla, eta hiru urte igaro ondoren ere, Udalak ez duela auziari buruzko inolako txostenik aurkeztu.

Batzordean, udal gobernuak zera esplikatu zuen: pasabideen jarraipena egiteko datu base bat eta baliabide bat sortzeko lanak aurreratuak dituela, baina lana bukatzeke dagoela oraindik. Zenbat urraketa identifikatu eta zigortu eta/edo erregularizatu duen galdetu, eta ez genuen erantzunik jaso. Tamalez, irudipena dugu ez dela pasabiderik kontrolatu; ez, behintzat, 2015eko azaroan auzia planteatu genuenetik.

Garrantzitsua da pasabide eta erreserben jarraipena egiteko baliabide bat edukitzea, baina baliabide hori izan zein ez, ordenantza betetzen den kontrolatzea ere garrantzi handikoa iruditzen zaigu.

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaleko Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio buka ditzala, 2018. urtea amaitu aurretik, pasabide eta erreserben jarraipena egiteko baliabide bateratu bat sortzeko lanak.
2. Donostiako Udaleko Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio kontrola, erregulariza eta, hala badagokio, zigortu ditzala pasabideen alorrean ordenantza urratzen duten kasuak, eta horretan, ez dadila egon pasabide eta erreserben jarraipena egiteko baliabide bateratu berria noiz edukiko zain.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

irabazi
DONOSTIA

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia.